

TXORI IZENAK EIBARREN

1978-IX-29

J. San Martin

Norbaitek esana du zenbait euskal hiztegitan baino txori izen gehiago aurkitzen dela Eibarko gaitzizenetan (izenordeetan). Hau aitortzea gehitxoizango da, baina bai esan dezakegu gaurko kalekume askok ezagutzen dituzten txoriak baino gehiago ez dela hain gauza gaitza, eta gaitzienen kontua ornitolozia oso aberatsa dugula ikusteko, nere *Zirikadak* liburuko "Txorien arrapatakak" deritzan gertaera (1) eta Toribio Etxebarriaren *Viaje por el país de los recuerdos*-ko "Los apodos" (2) irakurri besterik ez dugu. Hemen diodana egiztatzeako: Kukua, Zozua, Txori, Belia, Birigarrua, Txirixua, Eperra, Arranua, Mosolua, Gautxorixa, Txepetxa,... kaleko bataioz ezagutu ditugun pertsonajeak dira. Maiz, beren emazteei ere itsatsirik gelditutakoak, -esia atzizkiaz gehiturik. Adibidez: Arranosia, Kukusia, Txorixesia, Mosolosia ta abar, emakumezko popularrak izan ditugu gure Eibarren.

Eibarren, bertako Diana ihiza-arrantzale elkarteak, 1958ko ekainean *taxidermia*-zko erakusketa bat eratu zuen eta orduko elkarritzetatik interesatu nintzen herriko txori izenak biltzeraz. Izan ere, holako lan bat burutzeko herri aukerakoa da Eibar, zeren ihizari giroa aspaldikoa baita. Agiriak erakusten digitenez, XV. menderako suzko armak egiten ziren eta XVI.ean bertan anitz egin zen bai gerrarako eta bai ihizarako ere (3).

(1) J.S.M. *Zirikadak* (Zarautz, 1960), 82 orrialdea.

(2) T. Etxeberria, *Viaje por el País de los recuerdos* (México, 1968), 84 orr.

(3) G. Mujika, *Monografía histórica de la villa de Eibar* (Irún, 1910), pp. 76-99. Batzuk. *III Semana de Antropología Vasca* tomo II (Bilbao, 1976). "Cuarto parte. Armas", pp. 173-272.

Txori izenak lehendik ere bilduak ziren, baina, gutienez, zerrenda bat lekukotasuna eman nahi nuen, zientziaz ezagutzen diren hitz teknikoz hornituaz. Horretarako, lehengo lanekin baliatu beharra izan nuen, T. Aranzadi, E. Eguren eta P. Garmendiak RIEV (4) aldizkarian argitaratutakoetatik eta K. Etxegaraik G.G.P.V.N.-ren Bizkaiko tomoan (5). Lehen zerrenda hura, euskaraz, gazteleraez eta teknika hitzez, zenbait ihizari ezagunen artean banatu nuen, gehigarriak eta zuzenketak egin zezaten.

Baina, bitartean, Donostiako Arantzadi Natur Zientzia taldeko ornitologia sailekoak txori izenen batasunezko nomenklator bat argitaratu zuten Munibe (6) aldizkarian. Zerrendaren bukaeran ematen ditu bibliografiazko iturriak. Gero lan honetan oinarritu zen Peterson, Mountfort eta Hollom-en (7) *Guía del Campo* ezagunaren euskarazko izenak ere obra berean sartzeko eta hemendik aurrera, lan hau, oinarritzotzat jo beharrezkoa dugu euskerazko ornitologia lanean, batez ere hiztegi kontuan. Horregatik, nere lehengo lan hura berritu beharra izan nuen erdal itzulpenezko izena eta zientziakoa bera azken nomenklator honetara errenditzeko.

Badira beste lan batzuk txori izenez, Imanol Mendiola Euzko-gogoan egina, Martín Iziar-en *Gure txoriak* eta beste (8), baina izenetaz ez dute zientifikotasun gehiegirik eta ezer-tariko nahasterik izan ez dezagun *Guía de Campo de las aves*

(4) T. Aranzadi, *Nombres vascos de aves*, RIEV, III (1909) 160-167 orr. E. Eguren, *Sobre algunos nombres de pájaros*, RIEV, XXV (1932), 262-271 oor. P. Garmendia, *Nombres de aves en euskera*, XXV (1932), 294-309 orr.

(5) C. Echegaray. *Geografía General del País Vasco-Navarro*, "Vizcaya" tomoaren 281-286 orr.

(6) Grupo de Ciencias Naturales Aranzadi, "Repertorio de nombres vascos de aves adoptado por la Sección de Ornitología del Grupo de Ciencias Naturales Aranzadi" *Munibe* aldizkaria, XIII (1961), 310-326 orr.

(7) R. Peterson, G. Mountfort eta P.A.D. Hollom, *Guía de Campo de las aves de España y demás Países de Europa*. Segunda edición basada en la edición inglesa revisada y ampliada en colaboración con I. J. Ferguson-Lees y D. J. M. Wallace. Prólogo por Sir J. Huxley. Traducción y adaptación española por M. González Díez (Ediciones Omega, S. A. Barcelona, 1967).

(8) I. Mendiola, "Abere-itz-eta edo Abere-itz-adi" *Euzko-gogoa* (1956-1957); M. Iziar, *Gure txoriak* (Zarautz, 1966); Margo ederdun Enziklopedia eta beste.

de España y demás Países de Europa deritzanean oinarritu naiz Eibarren bildutako hauei gazteleraez eta zientziazkoan bere ordezko ize a hautatzeko. Hala ere, aitortu beharra dut, inoiz beste izen hauetan ere badirela guti batzuk zerbaitez nahastuak aurkitzen direnak. Ohar hau kontuan hartzetik aparte, beste batzutan izen batentzat, zientziazkoak inoiz bi edo hiru izaten dituela, familia edo mota berekoetan diferentzia gutiko berezkuntzak direlako; baina holakoetan bi edo hirurak batekin jartzen dira. Uurrengoa, espezie bat izen bakanrrakin erabiltzen denean, *común* hartua dugu, arruntenean oinarritzen delako.

Lan honen bete beharra ezta besterik izeneri lekukotasuna eta ere berean zientziaz behar duten zehaztasuna ematea baizik. Horrez gainera, euskal hiztegia hornitzeaz bat Eibarkoa bera osatu. Toribio Etxebarriak egin zigun hiztegi nagusia bera gehitu eta hobetu (9), lehendik egiten natorrenaren jarraipenez (10). Oraingo horretan hemen aurkezten ditudan izenok guztiz ehun ta hogeta bat dira, Batzuk Jatorriz Eibarkoaak ez badira ere, guziok Eibarren bilduak; bertan ezagutzen direnak. Eibartar ihizariak noranahi zabaldu dira beren ihizazaletasunak eraginik eta izen hauetako asko han eta hemen ikasiak izan daitezke, baina harremanezkoa izate honek ez du ukatzen bertako lekukotasunik.

Izen hoietakoa asko txorien hotsetik sortuak dira, onomatopeyaz, erdaretan ere gertatzen den bezala. Txori hiztegitxo honen aurkezpen ohar hauek bukatzen, hotsezko hitzen adierazpenezko esaldi bat eman dezadan. Guk, ibiliz, pausu sanoagatik "dzanga-dzanga" esan ohi dugunez, poliki ari-zeaz "txiri-txiri" esaten dugu eta hitz honek zer ikusirik badu eibartar ihizarien artean; ikus aipatu dudan T. Etxeberriaren hiztegi nagusi hortan "txiri-txiri" hitzez dakarren esaldia. Nik neuk era hontara entzun izan dudan hitz jokoa: "Han doia Urlia, txiri-txiri txara-txara, txoritzara txarara".

(9) T. Echebarria, *Lexicón del euskera dialectal de Eibar*. EUSKERA, X-XI (1965-1966).

(10) J. San Martín, *Eibarko hitz teknikoak* EUSKERA, III (1958), 141-158 orr.; IV (1959), 135-139 orr.; *Léxico técnico empleado en la industria eibarresa*, III Semana de Antropología Vasca (Bilbao, 1976), tomo II, 375-381 orr. Eta honez gainera: *Perretxiku izenak Eibarren*. EUSKERA, XX (1975), 317-324 orr.

Hemen, ondorean doaz txori bibliografia iturriak eta osatu dudan zerreenda, beste nornahiri antzerako lanean lagungarri izateko eran.

* * *

aata, aate, ánade real (*Anas platyrhynchos*).

abejoia, avión común (*Delichon urbica*).

abendu, gavilán (*accipiter nisus*). Azkuek, *abendu arre*, gavilán pardo.

abutarda, avutarda (*Otis tarda*).

amilotx, herrerillo común (*Parus caeruleus*).

antzarra, ánsar común (*Anser anser*).

araba zozo, estornino pinto (*Sturnus vulgaris*).

argi ollar, abubilla (*Upupa epops*).

aritxarrua, especie ornitológica de nuestros montes (T. Etxebarriak dakar, baina nik ez dut ezagutzen).

arraipardua, águila moteada (*Aquila clanga*).

arrano, águila real (*Aquila chrysaetos*).

arrano txiki, azoria, azor (*Accipiter gentilis*).

arranotxo, aguilucho pálido (*Circus cyaneus*), aguilucho lagunero (*Circus aeruginosus*), aguilucho cenizo (*Circus pygargus*).

artatxori, gorrión molinero, campestre o triguero (*Passer montanus*).

xasantzarra, ánsar campestre, ganso silvestre (*Anser fabalis*).

basollarra, urogallo (*Tetrao urogallus*).

basollua, sisón (*Otis tetrix*).

basontza, cárabo común (*Strix aluco*).

bela, cuervo (*Corvus corax*).

belatxinga, corneja negra (*Corvus corone*).

berdeloi, escribano soteño (*Emberiza cirlus*).

birigarro, biriarro, zorzal común (*Turdus philomelos*).

burriu, cigüeña común (*Ciconia ciconia*).

buzoka, buitria, buitre común (*Gyps fulvus*). Durangaldean saia deritzana.

buztanikara, rabilargo, aguzanieves (*Cyanopica cyanus*).

buztanikara, lavandera blanca (*Motacilla alba*), lavandera boyera (*Motacilla flava*).

durduria, durdula, zorzal charlo (*Turdus viscivorus*).

egabera, avefría (*Vanellus vanellus*).

- egazabala**, alondra común (*Alauda arvensis*).
eper, perdiz común (*Alectoris rufa*).
eper gorri, perdiz roja (*Perdix rubra*).
eper urdin, perdiz pardilla (*Perdix perdix*).
eper zuri, perdiz nival (*Lagopus mutus*).
erlejale, abejaruco común (*Merops apiaster*).
ernara, golondrina común (*Hirundo rustica*).
erretxinol txiki, carricerín común (*Aerocephalus schoenobaenus*).
eskillaso, arrendajo común (*Garrulus glandarius*).
ezkur txori, picogordo (*Coccothraustes coccothraustes*).
gabillara, gavilán (*Accipiter nisus*).
gabillara urdiña, aguilucho cenizo (*Circus pygargus*).
galeperra, galiperra, codorniz (*Coturnix coturnix*).
gallupa, pinzón real (*Fringilla montifringilla*).
garrapo, agateador común (*Certhia brachydactyla*).
gaubela, garza real (*Ardea cinerea*), garza imperial (*Ardea purpurea*).
gautxori, chotacabras gris (*Caprimulgus europaeus*).
itxas antzar, ganso de mar, pato de mar.
itxas arrano, águila pescadora (*Pandion haliaetus*).
itxas eperra, canastera (*Glareola pratincola*).
itxas ernara, charrán común, golondrina de mar (*Sterna hirundo*).
itxas mika, ostrero (*Haematopus ostralegus*).
kaio, **kaixo**, gaviota reidora, común, (*Larus ridibundus*).
kalandres, calandria común (*Melanocorypha calandra*).
kardantxillo, jilguero (*Carduelis carduelis*).
karrastarro, zorzal charlo (*Turdus viscivorus*).
katanaarra, trepador azul (*Sitta europaea*).
kuku, cuco (*Cuculus canorus*).
kuliska, zarapito real (*Numenius arquata*).
kurrollo, grulla común (*Grus grus*).
larratxori, alondra común (*Alauda arvensis*), tarabilla norteña (*Saxicola rubetra*).
larrolloa, alcaraván (*Burhinus oedicnemus*).
lorabatzalle, camachuelo común (*Pyrrhula pyrrhula*).
mendiollarra, urogallo (*Tetrao urogallus*).
mika, urraca (*Pica pica*).
mingor, agachadiza común (*Gallinago gallinago*).
mingor txiki, agachadiza chica (*Lymnocryptes minima*).
mirotxa, halcón común (*Falco Peregrinus*).

- mirua**, milano real (*Milvus milvus*).
mozolo, gaberdiko mozolo, lechuza común (*Tyto alba*), mochuelo común (*Athene noctua*).
neguta, pinzón vulgar (*Fringilla coelebs*).
okil, pito real (*Picus viridis*).
okil baltza, pito negro (*Drycopus martius*).
okil txiki, pito menor (*Dendrocopos minor*).
ollagorra, chocha perdiz (*Scolopax rusticola*).
ontza, buho chico (*Ario otus*), autillo (*Otus scops*).
ontz erriala, buho real (*Bubo bubo*).
ormatxori, gorrión común (*Passer domesticus*).
otatzori, papamoscas collarino (*Ficedula albicollis*).
paranda, parandia, pinzón vulgar (*Fringilla coelebs*).
pauso, pagauso, paloma bravia (*Columba livia*).
pauso txikia, paloma zurita (*Columba oenas*).
pauso zuria, paloma torcaz (*Columba palumbus*).
poxpolin, pospolin, galeper, codorniz (*Coturnix coturnix*).
sai, buitre común (*Gyps fulvus*). *Izen hau eibarren ezaguna da baina durangaldian hartua nonbait.*
sasi txori, ruiseñor común (*Luscinia megarhynchos*).
tarin, lúgano (*Carduelis spinus*).
txantxagorri, petirrojo (*Erithacus rubecula*).
txepetx, reyezuelo (*Regulus ignicapillus*), chochín (*Troglodytes troglodytes*).
txinbo, papamoscas.
txinbo burubaltz, curruca capirotada (*Sylvia atricapilla*).
txinbo buztangorri, colirrojo real (*Phoenicurus phoenicurus*).
txinbo karkarra, txinbo erriala, torcecuello (*Jynx torquilla*).
txinbo karkarra, tarabilla común (*Saxicola torquata*).
txinbo reala, alcaudón real (*Lanius excubitor*).
txinbotzia, (*Caudatus major*).
txirio, txirixo, mosquitero común (*Phyllascopus collybita*).
txirri, vencejo común (*Apus apus*).
txirriskilla, pardillo común (*Acanthis cannabina*).
txirriskilla, (*Fringilla citrinella*). Beste zenbait tokitan **zirriskilla** deritzana.
txirriskilla, verdecillo (*Serinus serinus*).
txirta, curruca zarcera (*Sylvia communis*), zarcerilla (*Sylvia curruca*).
txirta oriska, bisbita campestre.
txitxalapur, ave de rapiña.
txitxi, mosquitero silbador (*Phylloscopus sibilatrix*).

- txitxi**, bisbita común (*Anthus pratensis*), bisbita arbóreo (*Anthus trivialis*).
- txiu**, mosquitero común (*Phylloscopus collibita*).
- txiu**, avión común (*Delichon urbica*).
- txonta**, pinzón vulgar (*Fringilla coelebs*).
- txori**, nombre genérico de pájaros o aves.
- txori gaiztua**, alcaudón real (*Lanius excubitor*).
- txorzabal**, alondra común (*Alauda arvensis*).
- ur martiñeta**, martín pescador (*Alcedo atthis*).
- ur zozo**, mirlo acuático (*Cinclus cinclus*).
- ureperra**, rascón (*Rallus aquaticus*).
- urretxindorra**, ruiseñor común (*Luscinia megarhynchos*).
- uroollo**, focha común (*Fulica atra*).
- uroollo, uroollo baltza**, polla de agua (*Gallinula chloropus*).
- uso, usu**, paloma torcaz (*Columba palumbus*).
- usu tortola**, tórtola común (*Streptopelia turtur*).
- zerzeta**, cerceta común (*Anas crecca*).
- zezentxori**, avetoro común (*Botaurus stellaris*).
- zozo**, mirlo común (*Turdus merula*).
- zozo papar**, mirlo capiblanco (*Turdus torquatus*).